# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

## 3597

*EBAZPENA, 2013ko uztailaren 24koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko 2013. urtean euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzen Ebaluazio Batzordeko kideak izendatzeko dena.*

Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuak euskal etxeei eman beharreko diru-laguntzak arautzen ditu. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideen asistentzia premiei eta egoera larriei erantzuteko dira.

Aipatutako dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, 2013ko ekitaldirako diru laguntzen deialdia egin zen, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2012ko abenduaren 24ko Ebazpenaren bitartez.

Deialdi horren bosgarren oinarrian aurreikusten da irailaren 30eko 222/2003 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusita dagoen ebaluazio-batzordea geroago ebazpen bidez izendatuko dela sailen egitura berriak eratu ondoren.

Horren guztiaren ondorioz, eta Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendariak egindako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako jaun-andre hauek izendatzea atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko 2013. urtean euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzen Ebaluazio Batzordeko kide:

– María Ángeles Elorza Zubiria andrea, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, batzordeburua.

– Asier Vallejo Itsaso jauna, Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendaria.

– José Luis Madrazo Juanes jauna, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatuz.

– Fátima Ansótegi Elordi andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria, Osasun Saila ordezkatuz.

– Benan Oregi Iñurrieta jauna, Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako teknikaria.

– Andoni Martín Arce jauna, Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako teknikaria; Batzordearen idazkari lanak beteko ditu.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko apean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 24a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.